



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2015eko IRAILA - 166. zenbakia

Irailaren 20an hasiko da Beasainen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Lau urteren buruan, hemen da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren edizio berria. 43 bertsolarik hartuko dute parte irailaren 20an Beasaingo Usurbe antzokian hasiko den txapelketan. Hiru hilabetez luzatuko da eta abenduaren 20an jokatuko da finala Donostiako Ilunben. Saiotarako sarrerak zein bonuak dagoeneko salgai daude.

Udaberrian abiatuzen Gipuzkoa Bertsotan, 74 bertsolarirekin. Saikapen fasetik 30 bertsolarik lortu zuten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako txartela. Horiei, duela lau urteko txapelketan saikatzeara lortu zuten beste 13 bertsolari gehitu zaizkie; osotara, 43 bertsolarik hasi dute txapelketa. Horiez gain, 9 gai-jartzaile, 19 epaile, hiru idazkari eta laguntzaile ugari izango dira txapelketan lanean.

Hiru hilabetez 15 saio jokatuko dira Gipuzkoan barrena: sei final zortziren, bost final laurden, hiru finalurreko eta finala. Lehen saioa irailaren 20an jokatuko da Beasaingo Usurbe antzokian. Hortik aurrera, ia astero izango da dira saioak, fasetik faserako asteburuetan izan ezik.

Aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa abenduaren 20an amaituko da Donostiako Ilunben egingo den finalarekin. Bertan, saikatzeara lortu duten zortzi bertsolarik hartuko dute parte.

Sarrerak eta jarraipena

Dagoeneko saioetarako sarrerak salgai daude, www.bertsosarrerak.eus webgunean. Ohi bezala, Bertsozale Elkarteke bazkideek prezio berezia duzue

sarreretan. Halaber, saio guztietarako (finala salbu) balio duen bonua ere salgai dago internetez.

www.bertsozale.eus webguneak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren informazio osoa eta eguneratua eskainiko du. Horrez gain, www.bertsoa.eus atariak eta ETBko *Hitzetik Hortzera* telebista-saioak horren gaineko jarraipen berezia egingo dute.

Sare sozialetan ere Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen profilen bitartez segimendua egingo zaio Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari: @GBertsozale Twitterren eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen Facebookean. Twitterren #GBT15 traola erabiliko dugu.

FINAL ZORTZIRENAK

Irailak 20. Beasain
Irailak 26. Azpeitia
Irailak 27. Lasarte-Oria
Urriak 3. Elgoibar
Urriak 10. Arrasate
Urriak 11. Andoain

FINAL LAURDENAK

Urriak 24. Urretxu-Zumarraga
Urriak 25. Errenteria
Urriak 31. Zestoa
Azaroak 1. Ormaiztegi
Azaroak 8. Eskoriatza

FINALURREKOAK

Azaroak 22. Zarautz
Azaroak 29. Tolosa
Abenduak 6. Eibar

FINALA

Abenduak 20. Donostia



UXUE ALBERDI
Etxarri-Aranatz,
2015-VIII-03


Taberna berean, letra iraingarriak dituzten abestiak eta "Taberna honetan ez da eraso sexistarik" onartzen kartela.

Festetan nago ta tabernara eguneroko bisita altabozetan regetoia da ia topera jarrita. (bis)
Jendea lasai ari da dantzan gerria tita ta tita neri min pixkat egin dit baina nagonez festan hasita hau da betiko kritika hauxe delako eguneroko gure fondoko musika. (bis)

Gazte-gaztetan hasi ginen ta festa giroa gaurdaino musika honek blaitu ohi gaitu ta tabernan zenbat laino. (bis)
Ondo pasatzen egiten dugu guztiok nahiko enpeino kexatuz gero esaten dute "Ez izan marmarti ñaño!" ta ze geratzen den joño normalizatu egin dugula ia ez entzuteraino. (bis)

Musikak sarri jarri ohi gaitu abusuaren norantzan baina halere irteten gera juergarako esperantzan. (bis)
Ipurdia ukitzen digute erdi broman erdi txantan eta gainera kejatuz gero parre bat bueltan ta tatxan. Kejatu, ez egon zalantzan ea behingoan hasi gaitzkeen geure erritmora dantzan. (bis)

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2015



Aurtengo Txapelketaren irudia.//GBE

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Hamaika bertso saio egingo dira aurtengo udazkenean **Gipuzkoako zaharren egoitzetan**



Lankuk iaz jarri zuen martxan proiektua.//XDZ

Bertsolari baten iradokizunetik abiatuta, Lankuk Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Sailari *Adin Adin* proiektua aurkeztu zion iaz. Proiektuaren helburu orokorra "bertsoa ardatz hartuta, adinekoen bizi kalitatea hobetzea eta gaitasun psikoemozionalak lantzea" zen. Saioak metodologia zehatz batekin planteatu ziren, helburu hori lortzeko.

Proiektuari interesgarri iritzi zion Gipuzkoako Diputazioak eta proiektu pilotu gisa abiaraztea erabaki zuten. Horrela, iaz lau saio egin ziren, Azpeitia, Arrasate, Bergara eta Tolosako adinekoen egoitzetan. Egoitza haueko psikologoek balorazio oso positiboak egin zituzten.

Emaiza horiek ikusita, 2015ean ekimena egoitza gehiagotara zabaltzeko proposamena egin zuen Lankuk. Horren ondorioz, joan den urteko lau egoitzez gain, aurtengo beste zazpi egoitzetara zabalduko dute proiektua: Errenteria, Oiartzun, Azkoitia, Donostia, Beasain, Lazkao eta Tolosako bigarren egoitza batera.

Udazkenean burutuko dira saio hauek eta proiektuan zehaztu bezala inguruko bi bertsolari izango dira, bi belaunaldi ezberdinekoak eta ahal den heinean parekidea.

Egitasmoak izan duen harrera ona ikusita, hurrengo hilabeteotan *Adin Adin* proiektua beste herrialdeetan aurkezteko asmoa du Lankuk.

Hilaren 27an hasiko da **Hitzetik Hortzeraren denboraldi berria**

Irailaren 27an abiatuko da Hitzetik Hortzera telebista-saioa. Osozara, 26 saio izango dira, apirilaren 3ra arte luzatuko den denboraldian. Ikasturte honetan igandero arratsaldeko 15:00etan emango dute Hitzetik Hortzera, ohi bezala ETBren lehen katean. Orduan ikusteko aukera ez duzuenok bigarren aukera bat izango duzue, astelehenetan errepikapena izango baita iluntzeko 23:15ean.

lazko izaerari eutsiko dio Hitzetik Hortzerak, eta saio bakoitzean bertsogintzarekin lotutako gai bat izango du oinarri. Horrez gain, ikasturtean zehar izango diren gai nagusiei ere erreparatuko die telebista-saio beteranoak: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, Kulturartekoa, Bertso Eguna...

Bestalde, gaurkotasunari erabat lotuta segitzen du Bertsoa sareko plazak. Irailean ohiko eduki erritmora itzuli da www.bertsoa.eus ataria eta bertan bertsolaritzaren inguruko albisteak, erreportajeak, elkarrizketak eta bideoak eskaintzen segituko dute. Besteak beste, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren jarraipen berezia egingo du Bertsoak.



Igande arratsaldeetan emitituko dute Hitzetik Hortzera.//XDZ

Udan ere izan dira bertsoaritzarekin lotutako ekimenak

Udako hilabeteetan bertso saioak eta jaialdiak ugaltzen dira Euskal Herriko bazter guztietan. Halaxe izan da aurten ere. Horrekin batera, dagoeneko ohikoak bihurtu diren hiru ekimen interesgarri antolatu ditugu azken hilabeteotan.

Bertso Udalekuak

Urteroko hitzorduari jarraiki, bertsozale gazteenek bertso-udalekuekin gozatzeko parada izan dute uztailean eta abuztuan. Osotara, 213 haur eta gaztetxok hartu dute parte bertso-udalekuetan, eta 40 izan dira horietaz arduratu diren hezitzaileak.

Aurten ere bost txanda antolatu ditugu: Orion, Irañetan, Maulen, Muxikan eta Zuhatzan. 9 eta 18 urte bitartekoak izan dira parte-hartzaileak eta mota guztietako jarduerekin gozatzeko aukera izan dute.

Bertso-udalekuetako txandetan egindako laburpen bideoak ikusgai daude www.bertsoa.eus webgunean.



213 parte-hartzaile izan dituzte aurtengo bertso-udalekuek.//XDZ

Bertsoa Unibertsitatean

Bi ikastaro izan ditu uztailean egin zen *Bertsoa Unibertsitatean* eskolaren bigarren edizioak. Lehena, ahozkoitasuna eta hezkuntza aratuaz izan zen, eta bigarrena bertsoaritzaren bidegurutzeetaz. Mintzolak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean antolatutako ekimenaren ardatz nagusia saio akademikoak izan ziren, baina horrez gain performance batekin gozatu zuten ikasleek.



Bigarren edizioa egin du Bertsoa Unibertsitatean eskolak.//XDZ

Ahoa Bete Hots

Mintzola Fundazioak antolatuta, *Ahoa Bete Hots* jardunaldien seigarren edizioa egin zen Villabonan, uztailearen lehenengo hiru egunetan. *Emozioak eta umorea ahozkoitasunean* izan zen egin ziren saioen ardatz nagusia eta gai horrekin lotutako hitzaldi, taller eta performanceak izan zituzten jardunaldietako parte-hartzaileek. Demodé Quartet, Asisko Urmeneta, Amaia Vazquez eta Jone Miren Hernandez izan ziren parte hartu zuten hizlarietako batzuk.



Emozioak eta umorea izan zen jardunaldien gaia.//XDZ



Puntu jarrita

MIREN ARTETXE SARASOLA

Nahiago nuke konplexu gabe biziko banintz, Oihana! Ez dut konplexu gabe kantatzen, eta ez naiz konplexu gabe bizi. Gainerakoen iritziak eragiten dit (are gehiago, ezagun eta ezezagunek nirekiko izango duten iritziari buruzko nire espekulazioak berak eragiten dit), baina saiatzen naiz erakartzen nauen horri, jakinmina pizten didan horri bide egiten, nigandik espero litekeenaren gainetik... edo azpitik.

Konplexuak bistaraten zaizkit, zerbaitek ispilu egiten didanean. Eta plazan dena da ispilu. Esaterako, bertsolariaren irudi kanonikoarekin parekatzen badut nire burua, laster azaltzen zaizkit zazpi diferentziak. Zazpi horietatik lauzpabost, generoak eragindakoak. Besteak, bestela sortuak. Denak elkarreraginean. Denak taula gainean dantzan. Espero dena eman nahi ez, eta eman nahi nukeena ezin eman. Orain kaiolan, orain lekuz kanpo. Bertsoak emandako plazer txiki horiengatik ez balitz...

Utopikoa izan gabe, ez dut uste kanonik gabeko bertsolaritza bat izango denik inoiz. Hala nahi badugu, bertsolariaren beste irudi bat sortuko da, beste botere-sistema bat, eta hark sortutako desoreken aurka egin beharko dugu, berriz ere. Dabilen harriari... Lokatza.

Zorionez, iruditzen zait generoaren gaia saihestezin bihurtu denetik ari garela bertsolaritzari buruzko zenbait eztabaida mamitsuri errotik heltzen. Parada egokia izan liteke, beraz, feminismoak eskaintzen dizkigun tresnak (ere) erabiliz bertsolaritzaren sistema kontzienteki birdefinitzeko -ezin mingainari eutsi- bere konplexutasunean.

Galdetuz gero nolako bertsolaritza nahi genukeen (nolako plazak, nolako gaiak, zein funtzio sozial, zein estatus, nolako transmisioa...) kontraesanak datozkigu lauhazka. Baita geuk bertsolaritza nola bizi nahi genukeen galdetuz gero ere. Baina zer litzateke bizitza kontraesan eder horiengatik ez balitz? Ezta, Maider Arregi?

Koplak

Laboral Kutxarekin hitzarmena

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Laboral Kutxak bertsolaritza bultzatzeko hitzarmena egin dugu. Akordio honi esker, Laboral Kutxak Bertsozale Elkartearen proiektu orokorra garatzen lagunduko du. Helburuetan bat eginda, bi erakundeok lau urtetako iraupena izango duen hitzarmena sinatu dugu berriki.

Poto-Finixa



Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozale.eus helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz.

Emanaldi berriaren aurkezpena!

Kapulana Bat Zintzilik

Miren Amuriza

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

PUBLIZITATEA